Irungo euskarazko hamabostekaria

Irunero 428

Irailak 1, 2022

2 Irun atzo, Irun gaur
3 Berri laburrak
4-5 Done Jakue bidea
6 Lapurriturri
7 Euskaltegiak
8 Kirolak: Aitor Gorrotxategi
9 Kirolak: Hondarribia AE
10 Oiassotik Irunera
11 Haurren lanak / Denbora-pasak
12 Gazteen lanak
13 Beti gazte: Marieta Minasyan
14 iGazte
15 Agenda

“Lehen erronka berriro entrenatzen hastea eta lan erritmoa hartzea izango da”

Aitor Gorrotxategi, piraguista

- Caser Cuidados
- Etxez etxeko languntza
- Osasun arreta (Fisioterapia, Erizaintza, Psikologia, Podologia, etc.)
- Teleasistentzia 24h
- Akonpainamenduak

Edozein egoera, iraupen, adin eta lekutan laguntzarako behar duzun arreta.

caser residencial

Caser Residencial Anaka
Anaka kalea 8 - Irun

Caser Residencial Betharram
Zubieta kalea 161- HONDARRIBIA

900 103 348
caseresidencial.es

ZER GERTATU ZEN IRUNEN ORAIN DELA 100 URTE?

1922ko irailaren 10eko "El Bidasoa" aldizkarian XX. mende hasierako gaurkotasunezko gaiak irakur daitezke. "Hablemos con sinceridad" titulua daraman lehen artikuluan gaztetxoen gaiztakeriak eta helduen axolagabekeria salatzen dira, deabrukeriak behingoz amaitzeko asmoz. Udal Pilotalekuaren eraikuntza lanak hasi aurretik, aldizkarian pilotari irundar bat elkarrizketatu dute frontoi berriak izango duen erabileraz eta garrantziaz galdetzeko. Kuban Irungo dantzari talde baten argazkia jaso duen irundar batek euskal dantzak beste dantza motekin alderatzen ditu.

Bigarren orrialdean, kirol kronika; denboraldia hasi aurretik Real Unión taldearen errepasoa egiten da. Bestetik, Anatol atletak Atochako lasterketan lortutako emaitza onez gain, euskal taldeak Amerikan lortutako garaipena ere aipatzen da. Dimas kolaboratzaileak berriz, "Una escena" titulupean beste aldizkari batean kontatutako istorio baten atal berria irakur daiteke. Jarraian, J.L.-k ¡Au Posha! olerkian Aranazera maitalearekin egindako irteera kontatzen du. Atisleyk ejertzitoaren deia jaso ostean frontera doazen gaztetxoen agurrean nahasten diren sentimenduei ahotsa ematen die. Orrialdearen amaieran, hurrengo astean zehar hiriko Antzoki Nagusian egitekoak diren antzezlanen berri ematen da.

Hirugarren orrialdearen hasieran Irunen saneamendua hobetzeko egin diren lanak errepasatzen dira. "De todo un poco" atalean hainbat albiste labur argitaratzen dira. Batetik, Pi y Margall plazan bizikleten erabilera eta futbol partidak debekatu beharko liratekeela salatzen da. Bigarrenik, San Ramón jaiak euriarengatik bertan behera gelditu zirela kontatzen da. Azkenik, Marokon borrokatzeko abiatu den irundar gazte taldearen berri ematen da. Aldizkarian "Notas Municipales" y "Ecos de Sociedad" atal ohikoak errepikatzen dira. Azkenik, "Por ahí" atalean beste hainbat berri labur biltzen dira aldizkariaren 367. zenbakia amaitu aurretik.

Argazkia:

2228: Uranzu frontoia, 1934an inauguratua.

55562: Dantza taldea XX. mendearen hasieran.

57709: Irungo alde zaharraren bista panoramikoa Ibaietatik, ospitaleko pabiloi berriak, ospitaleko kapera, parkeko gotorlekua, udaletxea, Arbelaiz jauregia, Junkal eliza, etab. (XX. mendearen hasiera, eszena 1914 baino lehenagokoa da).

IRUNERO

Erredakzioa eta maketazioa:
Ainara Berges
erredakzioa@irunero.eus
irunero@irunero.eus

Administrazioa:
Joseba Arozena

Zuzenketa:
Aitor Lete

Erakunde honek Irunero diruz laguntzen du:

Publizitatea:
Amaia Terrazas
Ion Otxoa
Joseba Arozena
(jarozena@irunero.eus)

Diseinua eraberritzea:
Andrea Gomez Arocena

Inprenta:
ZEROA MULTIMEDIA S.A.

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak (Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua:

Argitaratzailea:
837 comunicación y publicidad S.L.
www.837comunicacion.com

ISSN: 1134-0606

Lege gordailua: SS-230-94

Tel: 943042052

Webgunea: irunero.eus

Erakunde honek Irunero diruz laguntzen du:

Musika koralaren bidez gogoratuko da San Martzialeko batailaren bosgarren mendeurrena

Eunate Encinas Kulturako zuzendariak, Atzokoak Abesbatzaren eta Albada Antzinako Musikaren Abesbatzaren arduradunek lagunduta, aurten betetzen den San Martzialeko guduaren V. mendeurrena ospatzeko programaren beste jarduera bat aurkeztu du. Hiru emanaldien kasuan sarrera doakoa izango da, plaza edo eraikinaren edukiera bete arte.

Oraingoan, hiru jardunaldi izango dituen kontzertu ziklo bat da. Lehen kontzertua irailaren 2an Junkaleko plazatxoan egingo da. «Gazteluzaharreko kantua» izenburuarekin, Atzokoak eta Albada abesbatzek emanaldia eskainiko dute, Pedro Ballazen eta beste batzuen parte-hartze bereziarekin. Sarrera doakoa da eta ikuskizuna 22:00etan hasiko da. Eguraldi txarra eginez gero, kontzertua egun bereko 20:00etan egingo da Amaia Kultur Zentroan. Bigarren kontzertua irailaren 16an egingo da San Martzial Ermitan. Bigarren kontzertuaren izenburua "Aldaba aintzinako musika" izango da. Zikloaren barneko azken kontzertua irailaren 23an egingo da Ama Xantalen ermitaren aurrean. Zikloko lehen kontzertuarekin gertatu bezala, eguraldi txarra egitekotan kontzertua egun bereko arratsaldeko 20:00etan egingo da Amaia Kultur Zentroan. Azken emanaldiak "Euskal Barrokensenble" titulua izango du.

Iraileko kontzertuetako sinopsia honakoa da: Irungo plazan, musikari ibiltari batzuek kantuan eta istorio-kontaketan dihardute bildutako ikusleen aurrean. Itsu bat iritsi da, itsumutilak lagunduta, eta herritar guztiei dei egiten die, 1522ko ekainaren 30ean hirian izan ziren balentria handien berri entzun dezaten. Bertso eta ahapaldien bidez, itsuak xehe-xehe kontatuko du egun haietan gertatutakoa, bai eta, amaieran, San Martzialeko gudua eta irundarren garaipena ere. Azkenik, bakearen aldeko aldarri bat egingo da, musika-pieza berri bat estreinatuta: La nueva Artillería.

Ekimen gehiago
Hiria garai hartako giroan murgiltzeko, 2022an beste ekimen batzuk antolatzeko ere lanean ari da Irungo Udala. Hiriko historiarekin eta pertsonaiekin lotutako beste urteurren batzuetan bezala, lankidetzan eta lanean aritzeko ildo bat sortu da hiriko merkatarien eta ostalarien elkarteekin, 1522ko guduarekin lotutako ekimen herrikoiak eta kale-dinamizazioko jarduerak antolatzeko. Dagoeneko iragarri diren beste ekimen batzuen barruan, aipagarria da Exfilna erakusketa filateliko nazionala, Bidasoaren ertzeko udalerrien topaketa edo mendeurrena oroitzeko irudi erraldoia eta dirulaguntzen deialdiak.

Gazteartean ikerketa bekaren laugarren edizioa abian jarri du Gazteria Arloak

GazteARTEan Irungo Udaleko Gazteria Zerbitzuak GazteARTEan ikerketa bekaren laugarren edizioa aurkeztu du. Haurren, nerabeen eta gazteen alorreko gaiak ikertzeko beka bat da, eta 35 urtetik beherako gazteei zuzendua dago. Proiektuak 2022ko urriaren 24ra arte aurkeztu ahalko dira. Diru-laguntzaren zenbatekoa 8.000 eurokoa izango da.

Bekaren xedeen artean daude ekimen sortu berriak autonomoki garatu daitezen laguntzea, ikertze lana bultzatzea eta akuilatzea gazteen artean, eta, aldi berean, Udalaren eta gazteen artean lan egiteko lerro berri bat irekitzea.

Ikerketa lanak 8.000 euroko aurrekontua izango du, eta gehienez ere 8 hilabetean egingo da, esleitzen den egunetik kontatzen hasita. Azken emaitza edo entregagarria hainbat formatu/proposamenetan aurkez daiteke: proiektua, prozesua edo ekintza (dibulgaziozko materiala, lankidetza proiektuak eta/edo parte-hartzaileak, etab.).

Bereziki interesgarriak dira ikerketa/ekintza garatzeko momentuan Irungo gazteen parte-hartze zuzen eta aktiboa daukaten proposamenak.

Ezarritako metodologiaren originaltasuna eta berrikuntza baloratuko dira, bai eta hausnarketarako prozesuak integratzea ere, baldin eta gazteen esperimentazioa eta ikasketa bateratua ahalbidetzen badituzte.

Betekizunak
Beka hau pertsona fisikoek eska dezakete, banaka edo berariaz osatutako taldeetan. Era berean, beka eskuratzeko, ezinbestekoa da Unibertsitateko gradua edo lizentziatura izatea. Gainera, eskatzaileak 35 urteak bete gabe izan beharko ditu beka eskatzen den urteko abenduaren 31n.

20 URTE
ANTXETA
IRRATIA
90.5 / 89.7 FM

Olaizola
INMOBILIARIA AGENTZIA
Salmenta-Alokairuak
Promozio berriak
Aholkularitza
Beraketa kalea, 17 • 20302 IRUN • Tel: 943 626585
info@inmobiliariaolaizola.com
www.inmobiliariaolaizola.com

Done Jakue bidean ezina ekinez egina

Toki batetik bestera joateko igaro behar diren tokien segida gisa deskribatu daiteke "bide" hitza. Pandemiaren ostean hitz horrek bere esanahia berreskuratu du Santiagorako bidea hartzen duten erromesentzat. Izan ere, erromesbidea ate edo katez guztiz itxi ez bada ere, pixkanaka ohiko pelegrin kopuruak berreskuratzen hasi dira.

Jose Ignacio Galzacorta, Josin, Irun-Bidasoako Done Jakue Elkarteko (JAKOBI) lehendakaria da eta bere begiek Santiago Bidearekin loturiko esperientzia luzea adierazten dute. Elkarteko lehendakariak aurreratu duenez, erromesaldi munduak oraindik ez du gainditu pandemiak bidean eragindako abagunea. Alegia, pandemia hasi bezain laster aterpetxea ixteko erabakia hartu zuten premiazko bilera batean. Josin Galzacortak adierazi duenez, "oso erabaki gogorra izan zen, baina ezinbestekoa izan zen". Done Jakue Bidea posible egiteko lan egiten duten ospitalari eta boluntarioak adineko pertsonak direla gogoratu du: "Nik 74 urte ditut eta zuzendaritza batzordeko hirugarren kide gazteena naiz".

Lehendakariak azaldu du 2021. urtean aterpetxean berriro ere martxan jartzeko zalantzak izan zituztela, baina azkenean ezinezkoa izan zen. Horrela, Erromes Federazioak bidalitako gutunaren hitzekin bat egitea erabaki zuten, "bidea erromesez bete baino lehen, erromesak bidea egiteko gogoz betetzeko".

2022ak, ordea, berriro Irungo Erromesentzako Aterpetxeko ateak parez pare irekitzeko aukera eman du, eta oraingoan bai, inolako zalantzarik gabe. Aterpea ireki arren, oraindik ordea ez da pandemia aurreko erromes kopurua berreskuratzea lortu. Datuek hala baieztatzen dute. Kontuan hartuta 2019 izan zela normaltasunez lan egin zen azken urtea, urte horretako abuztuaren amaiera arte 7.143 erromes jaso zituen Irungo aterpetxeak. 2022an, berriz, abuztuaren 15era esatea urteen amaieran metatutako gaualdien kopurua erreferentzia gisa hartzen den azken urtekoa baino txikiagoa izango dela ziurrenik.

Aurtengo urte amaierako gaualdien kopurua azken urte arruntarekin alderatuta %10 txikiagoa izan daitekeela aurreratu dute JAKOBI elkartetik. Hala ere, datu hau testuinguru egokian ulertzeko azalpena eman du elkarteko lehendakariak: urte hasieran Irungo aterpetxeari buruzko informazio okerra zabaldu zen

"Bidea erromesez bete baino lehen, erromesak bidea egiteko gogoz betetzeko"

Josin Galzacorta, JAKOBI elkarteko lehendakaria

Done Jakue Bidearekin loturiko hainbat webguneetan aterpetxea itxita zegoela esanez eta ondorioz, erromes askok beren ibilbidea edo abiapuntua aldatzea erabaki dutela uste da.

Borondatearen eta debozioaren elkargunea

Irungo Erromesen Aterpetxea dohaintza izaerako aterpetxea da. Esaterako, Gipuzkoa mailan dohaintzako aterpetxeak desagertzen ari dira, Irungoaz gain, Pasaiakoa eta Debakoa dira funtzionamendu bera duten bakarrak. Aterpetxe eskasiaren aurrean kezkatuta agertu da JAKOBI elkarteko presidentea: "Inguruan gero eta aterpe gutxiago dauzkagunez, erromes askok eta askok Gipuzkoa egin gabe uztea erabakitzen dute". Boluntarioak ez dira falta, baina administrazioek eta Elizak gehiago lagundu beharko luketela uste du. Egoerak bere horretan jarraitzen badu, beharbada, Gipuzkoako bidea arriskuan egon daiteke. Izan ere, Donostia bezalako hiri handiek bestelako bisitariak erakartzea nahiago dutela azaldu du Juanjo Mariaetxalar JAKOBI elkarteko boluntarioak eta erromesak. Era berean, gogoratu du erromesak izandakoak askotan urte batzuk geroago turista bezala itzultzen direla leku berdinera asko gustatu zaienean eta, orduan bai, poltsikoan diru gehiago dutela.

Aterpetxeez gain, ospitalariak dira Done Jakue bidearekin loturiko beste elementu ezinbesteko bat. Ospitalariek doan lan egiten dute aterpetxeetan, erromesei harrera egiteaz eta erregistroa betetzeaz arduratzen direlarik. Egonaldiak 10 egunekoak dira eta ordainean egunero bazkaltzeko txarteltxoa ematen zaie bakarrik. "Oraintxe Castelloko eta Bilboko neska batzuk dauzkagu gurekin lanean, baina Kanarietako, Holandako, Belgikako eta Austriako jendea izan dugu gurekin, beraz, mundu osoko ospitalariak dauzkagu", azaldu du Josin Galzacortak.

Elkartea zabaltzen

Irungo JAKOBI elkartea arduratzen da Irungo erromesen aterpetxearen kudeaketaz. Erromesak jasotzeaz gain, elkarteak bestelako ekintzak antolatzen ditu elkartearen jarduera ezagutzera emateko. Batetik, JAKOBI elkarteak argazki lehiaketa bat du martxan. Argazkiak irailaren 15era arte bidali daitezke eta parte hartzea sustatzeko aurten, berrikuntza moduan, argazkiak oinarri fisikoan bidali ordez, emailez ere bidaltzeko aukera eskainiko da. Bestetik, urrian JAKOBI elkarteak Jakobear Astea antolatzen du non Santiago Bidearekin loturiko hainbat ekitaldi kultural antolatzen diren, hala nola, ikus-entzunezkoak, hitzaldiak, Donejakue Bideari buruzko argazki-erakusketak, musika-kontzertuak, etab. Gainera, Done Jakue Irun-Bidasoa elkarteak «Enguancheminados» gazeta argitaratzen du jakobear kulturara hurbiltzeko asmoz elkarteko jarraitzaileak, eskualdeko bizilagunak eta jakobear kulturazaleak. Horretaz gain, pandemian zehar aterpea itxita egon arren eta ohiko zerbitzua eskaini ez arren, elkarteko kideek aholkularitza zerbitzua eta laguntza eskaintzen jarraitu zuten.

Ia edozein motako bisitariak

Pandemiaren ostean joera aldaketa nabari bat hauteman dute Done Jakue Bidearen inguruan lanean dabiltzan boluntarioek. Lehen estatu mailako erromesak gehiago ziren atzerritarrekin alderatuta eta harrez geroztik kanpotarren kopurua gailentzen ari da. Josin Galzacortak baieztatu duenez, "aurten gainera benetako erromes sena duten pertsona gehiago ikusten ari gara, aurreko urteetan erromesak opor merkeak bilatzen zituzten turistekin nahasten baitziren".

Aterpetxeak 60 pertsonentzako lekua du eta Josin Galzacortaren hitzetan, "oheak betetzea eta jendea aterpearen instalakuntzekin pozik agertzea baino, nahiago dute jasotako harrerarengatik pozik agertzea". Arratsaldero bertan jasotzen dituzten bisitarien profila askotarikoa da, nahiz eta zenbait gauza partekatu. 2022an Irungo aterpetxera iritsi diren erromes gehienek (% 20,70) 21 eta 30 urte artean dituzte, bigarren talde jendetsuena 31 eta 40 urte artekoak (% 19,16) direlarik. Bertara iristen diren erromesen % 97,26k Iparraldeko edo Kostako bidea egiteko asmoa dute eta % 1,27 bueltako bidean daude. Santiago bidea egiteko moduen arabera, berriz, Irundik igarotzen diren erromesen % 96,29k bidea oinez egiten du, % 3,71 bizikletaz mugitzen den bitartean.

Jatorriaren arabera, berriz, bisitarien % 30,79 estatu mailakoak dira. Horien artean % 5,91 Bartzelonakoak dira, % 4,90 Madrilekoak, % 2,57 Valentziakoak eta % 1,16 Bizkaikoak. Bisitari guztien artean, berriz, % 18,06 Frantziatik datoz, % 13,21 Alemaniatik, % 7,77 Italiatik eta % 4,64 Estatu Batuetatik.

Estatistika guzti horien atzetik istorio benetan bereziak ezkutatzen dira. Juanjo Mariaetxalarrek azkenaldian ezagututako bi istorio berezi kontatu ditu. Batetik, arratsalde euritsu batean 3 haur txikiekin familia bat iritsi zen eta boluntarioen arreta deitu zuen ezohikoa baita haurrekin batera Santiago bidea egiten duen jendea topatzea. Hurrengo egunean Juanjok Jaizkibeleko bideetan barrena aurkitu zituen, bi haur txikiak orgetan garraiatuz, haur handiena aurretik eta aurpegian irribarrea zutelarik. Beste egun batean, berriz, Jaizkibelen gazte talde bat topatu zuen. Haiekin hitz egiten hasita ohartu zen Pateretan iritsitako migratzaileekin etxebizitza partekatzen duten eta Donejakue bidea elkarrekin egiten ari zen Madrilgo gazte talde bat zela.

Done Jakue bideak ezkutatzen dituen pasarteak eta bizipenak askotarikoak dira. Denborak edo fedeak esango du etorkizunean zenbat erromes iritsiko diren Irunera. Bien bitartean boluntarioek eskuratu duten guztia eskaintzen jarraituko dute bidaiariei harrera beroa eskaini ahal izateko.

"Esperientzia hau biziko dudan bigarren urtea izango bada ere, esperientzia guztiz desberdina izango da, pertsona ezberdin bat naizen aldetik"

Lisa Halloran, Sydneytik etorritako erromesa

José Silva, Lisa Halloran, Romy Van Hasendonck eta John Gibbons Irungo aterpean

4 istorio, 4 bide

John Gibbons apaiza, Pennsylvania

Aita John Gibbons-ek, Pennsylvaniako Allentown hiritik Irunerako bidaia egin du bertan lehenengo aldiz Done Jakue bidea egin ahal izateko. Allentowneko Sortzez Garbiaren eskolan hartutako urte sabatikoaz baliatuz, bide horri ekiteko urte egokia dela erabaki du. Esperientzia hau aprobetxatu nahi dut nire espiritua berreraikitzeko, urte asko "neramalako hori egin nahian", adierazi du Gibbons apaizak. Elkarrizketa egindako egun berean hasi zen John Gibbonsentzako Santiago Bidea Irunen eta Iparraldeko Bidetik hasita eta, Bide Primitiboaren zati bat eginda, Santiago de Compostelaraino iristea erabaki du. Gibbonsen hitzetan: "Udan Espainian egiten duen beroaren inguruko albiste asko iristen zaizkigu Estatu Batuetara eta horregatik aukeratu dut kostaldetik doan bidea, jende gutxiago ibiliko delakoan". Gainera, apaizak pentsatu du aurten Urte Sakratua denez, jende gehiagok erabakiko duela Done Jakue bidea egitea, Coronavirusaren osteko lehen urte arrunta izateaz gain.

Romy Van Haesendonck, Brusela

Romy Van Haesendonckek Irunen gaua igarotzea erabaki du, berarentzako Done Jakue Bidea Santillana del Marren hasiko bada ere. "Bakarrik hiru aste dauzkat Santiagoraino iristeko", adierazi du Romyk. Gainera, Santiago Bidea egingo duen lehenengo aldia denez, ez zuen gehiegi arriskatu nahi. Bi urte zeramatzan Romy Van Haesendonckek Done Jakue bidea egin nahian baina pandemiaren ondorioz dena itxi zenez, bidaia atzeratu egin behar izan du. "Ibiltzen hasi eta esperientzia nolakoa den ikusteko gogo handia daukat", azaldu du Haesendonckek. Aurretik Done Jakue bidea egin duten hiru pertsona ezagutzen ditu Romyk eta beraien esperientziak nolakoak izan diren entzutea oso lagungarria izan zaio. Romy Van Haesendoncken hitzetan: "Santiagorako bidea nik bakarrik egitea erabaki dut, bidean jende atsegina topatuko dudalakoan eta jende berria ezagutzeko aukera emango didalakoan".

Lisa Halloran, Sydney

Lisa Halloranek berriz, bigarren urtez ekingo dio Done Jakue bidea oinez egiteko erronkari. 2013. urtean Frantziako Bidetik egin zuen Santiago Bidea. Bitartean laugarren mailako minbizia gainditu du Lisak. 12 ebakuntza egin eta ia bizia galtzeko zorian egon ostean, bere bizitzako kapitulu zital hori itxi nahi du Lisa Halloranek Santiagoko Bidea eginez. Lisa Halloranek uste du Ibilbide luze horrek gertatutakoaren eta itxi berri den atal honen ostean, etorkizunean pentsatzeko aukera emango diola. Dagoeneko Pirinioetako GR10 bidetik apur bat ibili da eta Santiagora iristeko 6 aste dituela azaldu du. Lisa Halloranek adierazi duenez, "esperientzia hau biziko dudan bigarren urtea izango bada ere, esperientzia guztiz desberdina izango da, pertsona ezberdin bat naizen aldetik". Frantziako Bidearekin alderatua paisaia guztiz bestelakoa dela azaldu du Halloranek eta berdearen eta urdinaren nahastea asko gustatzen zaiola onartu du. Bakarrik ingelesa ulertu arren, bideak pertsona asko ezagutzeko aukera eman diola azaldu du eta bere ustez ibiltari guztiek abentura nahiez eta jakin-minaz betetako espiritua partekatzen dute.

José Silva, Azoreak

José Silvak, berriz, bizikleta gainean ekingo dio Santiago Bideari. Bere bidaia Amsterdamen hasi zuen duela hilabete bat eta hogei egun, baina orain ekingo dio Done Jakue bideari. Portugaldarrarentzat Done Jakue Bidea egingo duen lehenengo aldia izango da. "Nire bokazioa katolikoa da eta gaztaroan gai horrekin lotutako arazoak izan nituen, baina geroago fedearen bidea aurkitu nuen eta horrela lortu nuen jasotako hezkuntza katolikoa onartzea", azaldu du Azoreetako fededunak. Azkenaldian mezetan parte hartzen duela adierazi du José Silvak, azkena Mont-Saint-Michelen eta nabarmendu du azken meza hori bereziki aberatsa izan dela. "Denbora asko neraman Santiago Bidea egin nahian eta ulertu dut hori egiteko une aproposa oraingo hau zela".

Aiako Harria eta Parke Naturala hitzen arteko loturaz

Aspalditik Aiako Harria eta Parke Naturala hitzak elkarren ondotik doaz. 2007an Lapurriturri izeneko informaziogunea inauguratu zen natur ingurunera hurbiltzen diren bisitariei informazioa emateko. Bisitarientzako arreta zerbitzua eskaintzeaz gain, naturarekiko errespetua sustatzen duten jarduera dinamikoak antolatzen dira. Urkiri Salaberria informazio puntuko arduraduna da eta martxan den denboraldiko gakoak azaldu ditu.

Aurtengo denboraldian jasotako bisitekin pozik zaudete?
Bai, egia esan, errealitate berriaren barneko lehen urtea izan baita. Covid-19ak asko erakutsi digu eta oraindik pandemian hartutako zenbait neurri mantentzea erabaki dugu. Pozgarria da berriro kanpotik etorritako bisitariak jasotzen hastea. Pandemiaren ostean batez ere ikusi genuen haurrak zeuzkaten familia asko hurbildu zirela parke naturalera. Orain, normaltasunaren itzulerarekin, jaitsiera nabaritu dugu bai, nabari baita jendea kanpora joan dela. Dena den, nabari da beste hainbat bertan gelditu direla, gertuko turismoa egitea erabaki dute eta ikusi dugu familientzako beste aukera bat dela. Beraz, badirudi ohitura hori oraindik mantentzen dela eta gu pozik gaude.

Zein da informazio puntuan eskaintzen duzuen informazioa?
Irun Berdea zer den azaltzeari garrantzi handia ematen diogu. Izan ere, informazio puntu honen gakoa hori da; irundarrentzako puntua da batez ere. Bulegoan jasotzen ditugun bisitari gehienak Irungoak dira. Bisitari horiei parke naturala zer den azaltzen diegu. Zer nolako inguruan dauden azaltzeaz gain, txangoetan nolako portaerak izan behar ditugun gogoratzen diegu. Esan daiteke "erabiltzailearen eskuliburua" bezalako zerbait garela. Banatzen ditugun informazio orrietan ibilbide markatuak dauzkagu, marka horien esanahia adierazten da eta galtzekotan nola jokatu behar den azaltzen da. Era berean, inguruan dauzkagun animaliei buruzko informazioa ematen dugu. Bisitariei gogoratzen diegu ez gaudela parke tematiko batean, baizik eta parke natural batean.

Bertako bisitariez gain, turistak parke naturaleraino iristen dira?
Horretarako turista hitza definitu beharko genuke. Esango nuke hemendik agertzen diren turistak bidaiariak direla, naturarekin oso lotura estua baitute eta asko GR11 ibilbidea egiten ari dira. Aurten alemaniar eta Herbehereetako jende pila ikusten ari gara azken bi urteetako datuekin alderatuta. Beraz, ez dira erostera edo jatera datozen turistak, naturaz gozatu eta inguru honen bereizgarritasunaz gozatzeko asmoarekin datozen pertsonak dira.

Zuek antolatutako irteerek oso harrera ona izaten dute, ezta?
Bai, ikaragarria da. Guztira, irteera bakoitzean 20 toki eskaintzen ditugu eta doakoak izaten dira. Irteera horien bitartez eremu bera begi ezberdinetatik ikusteko ahalegina egiten dugu, irteera zuzenduko duten espezialistak ekarriz gurera. Mota guztietako adituak izaten dira. Historialariak, espeleologoak, arte ederretako adituak edo astronomoak gonbidatu izan ditugu. Horiei esker inguruan dugun aberastasunaz konturatu gara, toki berean egonda ere begirada lekuz aldatzean ikuspegia ere aldatzen baita, eta aberastasunaren handitasunaz jabetzen gara.. Erakargarriak dira bereziki familia osoarentzako pentsatutako irteerak direlako, adinen arteko bereizketa handirik egin gabe. Aurreko eguneko irteeran esaterako, parte hartzaileen artean 70 urte arteko aldea zegoen. Ederra da belaunaldi ezberdinak ekintza berberaz disfrutatzen ikustea. Hala ere, oraindik nerabeak erakartzea falta zaigu.

Noiz arte luzatuko da informazio puntuaren denboraldia?
Normalean urriko zubira arte lan egiten dugu. Aste Santuko jaiegunetan hasten gara zerbitzua ematen, baina ekaina iritsi arte ez dugu benetan denboraldia hasten. Informazio puntua astebururo eta jaiegunetan zabaltzen dugu.

Zein egoeratan dago Parke Naturala 2021eko sutearen ostean?
Parke Naturala oraindik sutearen ondorioetatik onbideratzeko bidean dago. Hain zuzen ere, hori da parkearen ezaugarri bat; natura zainduta, naturari bere bidea egiten uzten zaio. Horregatik errepikatzen dugu hainbestetan hau parke natural bat dela. Gizartearentzako funtsezkoa da parke naturalean gertatzen denaren diagnostiko bat egitea prospekzioa egin ahal izateko. Adibidez, narrastien mugimenduei erreparatzen diegu, txorien joan-etorriak jarraitzen ditugu edo desagertutako espezieez ohartzen gara. Horrekin guztiarekin gure hirietara iritsiko diren berri onak edo txarrak aurreratzeko gai dira adituak. Beraz, urteak beharko dira sutearen kalteak gainditzeko eta ez dakigu sutearen aurreko egoera guztiz berreskuratzea posible izango ote den. Natura parkeetan, naturari lan egiten uzten zaionean gertatzen dira gauzak. Adibidez, egur ustelak mota jakin bateko intsektuak erakartzen ditu. Horiek txoriak erakartzen dituzte eta txoriek beste harrapakariak. Guk ezin dugu jakin zer gertatuko den animalien arteko harreman horrekin, hau da, zein beste animalia erakarriko dituzten edo zenbat denboraz luzatuko diren harreman horiek. Zeregin horretaz basozainak eta aldundiko zerbitzuak arduratzen dira. Argi dagoena da kostako dela horrelako sute baten ondorioak gainditzea.

Parkearen barnean bisitari guztiak gizalegez portatzen dira?
Nire ustez jarrera desegokiak desagertzeko naturarekiko errespetuzko kultura zabaltzeko beharra dago. Uste dut errudunak bilatzearekin eta zigortzearekin ezer gutxi konpontzen dela. Beti aldarrikatu izan dut ezagutzan datzala maitasuna eta zuk maitatzen duzun zerbait ez duzu kaltetzen. Nire ustez, kultura hau zabaltzen jarraitu behar dugu, jendeak askotan gauzak ezjakintasunetik egiten baititu. Jende askok uste du parke naturalaren barruan garbiketa zerbitzua dugula eta ez da horrela. Aipatzekoa da Donostiako Klasikoa igaro ostean parkea inoiz baino garbiago gelditu zela. Parke naturala jendez lepo egon zen arren, hurrengo egunean inoiz baino garbiago zegoen eta hori da lortu behar duguna.

Datorren ikasturtean euskarak ez du plazara jalgitzeko arazorik izango euskaltegien eskaintzari esker

Ikasturte hasiera, urte berriaren hasierarekin gertatu ohi den moduan, proposamen eta helburu berriez beteta egon ohi da. Batzuk aspaldidanik egiteke dauden helburuen bila abiatuko dira, eta beste batzuk, berriz, inoiz iristen ez den "geroagorako" utziko dituzte. Euskara zerotik ikastea edo ezagutza maila hobetzea helburu horietako bat izan daiteke eta Irungo euskaltegiek askotariko ikastaroak proposatzen dituzte ezina, ekinez bada ere, egiteko.

Udal Euskaltegia
Irungo Udal Euskaltegian izena emateko epea irailaren 1ean hasi eta 19ra arte egongo da zabalik. Irungo Udal euskaltegia Urdanibia plazako 5. zenbakian kokatua dago.

Udal euskaltegian A1, A2, B1, B2 eta C1 mailako ikastaroak eskaintzen dira. Interesdunek astean bi, hiru, lau eta bost egunetan eskolak jasotzea aukeratu ahalko dute. Gainera, Udal Euskaltegiak gurasoentzat, erretiratu eta merkatarientzat bereziki prestatutako ikastaroak ere eskaintzen ditu. Astean bitan mintza taldeak antolatuko dira. Azkenik, larunbatetan B2 eta C1 mailetako azterketak prestatzeko ikastaro bereziak egingo dira larunbat goizetan. Ikastaroen eskaintza zehatza ezagutu eta izen emate inprimakia eskuratzeko udal webgunea kontsultatu beharko da. Ikastaroaren maila aukeratzeko ikasleek sarrera proba bat egin beharko dute taldeak antolatu ahal izateko.

Informazio gehiago lortu nahi duten horiek 943505273 zenbakira deitu edo euskaltegi@irun.org helbidera idatzi beharko dute.

LANNAHI
Udalak, gainera, urriaren 3tik abenduaren 23ra ikastaro trinkoak debalde eskaintzen dizkie langabezia egoeran dauden ikasleei, % 50 edo gehiagoko ABEEn (aldi baterako enplegu-erregulazioko espedientea) dauden ikasleei, edo lanean egonda ere, gehienez %50eko lanaldia dutenei LANNAHI programaren bitartez. Programa hau Euskara Arloak martxan jarri zuen euskara ikasteko ahaleginean ari diren irundarrentzako.

Herri Jakintza
Herri Jakintza Euskaltegiak nobedade garrantzitsu batekin hasiko du 2022-2023 ikasturtea, helbidea aldatu baitu. Orain Euskaltegia San Juan Arria plazako 4. Zenbakian kokatua dago.

Herri Jakintza euskaltegiak egunero euskara ikasteko ikastaroak eskaintzen ditu A1, A2, B1, B2 eta C1 mailetan. Ikastaro hauek astelehenetik ostiralera bitartekoak dira eta 2 edo 3 orduko saioetan antolatzen dira, goizez, arratsaldez eta gauez ematen direnak.

Astean hiru eguneko ikastaroak nahiago dituzten horiek A1, A2, B1, B2 eta C1 mailako ikastaroak izango dituzte aukeran. Eskola horiek astelehen, asteazken eta ostiraletan emango dira, bi edo hiru orduko saioetan banatuak. Ikasleek ere goizeko, arratsaldeko edo gaueko ordutegiak izango dituzte aukeran.

Era berean, Herri Jakintza euskaltegian astean bi eguneko ikastaroak eskainiko dira aurten. Astearte eta ostegunetan 3 edo 4 orduko eskolak emango dira goizez eta arratsaldez.

Asteburuan ikastea nahiago duten horiek larunbatetan emango diren B1, B2 eta C1 ikastaroetan izena emateko aukera izango dute. Larunbatekoak 4 orduko saioak izango dira, goizeko 9:00etatik 13:15etara.

Autoikaskuntza Herri Jakintza euskaltegiko ikastaroak jarraitzeko beste modu bat izango da. Ikastaro horiek 3 edo 9 hilabeteko iraupena izango dute.

Aurretik aipatutako eskaintzan interesa duena 943 63 52 66 telefono zenbakira deituta edo herrijakintza@gmail.com helbide elektronikora idatzita jarri ahalko da harremanetan Herri Jakintza euskaltegiko arduradunekin.

Irungo AEK
Irungo AEK euskaltegiak maila guztietako ikastaroak eskainiko ditu 2022/2023 ikasturtean zehar. Hau da, ikasleek HABEko A1, A2, B1, B2, C1 eta C2 tituluak lortzeko aukera izango dute, maila horien prestaketara bideratutako ikastaroak eskainiko baitira. Zehazki, larunbatetan 5 orduko ikastaroak eskainiko dira B2 eta C1 tituluak prestatu ahal izateko.

Euskara eskolen ordutegia ere zabal-zabala da, izan ere, ikasleek aukeratu ahalko dute astean zehar bi, hiru edo lau orduko ikastaroak egitea. Gainera, Irungo AEK-k eskolak goiz, eguerdi, arratsalde zein iluntzetan eskaintzen ditu ikasketa prozesua bestelako zereginekin uztartzea posible izan dadin. Dena den, beren erritmora ikastea nahiago duten ikasle horientzat autoikaskuntza ikastaroak proposatzen ditu.

Are gehiago, AEK-k hainbat berrikuntza dauzka hastear den ikasturterako. Batetik, goizez zein arratsaldez mintza ikastaroak proposatzen ditu. Bestetik, astelehenetan eta asteazkenetan 19:30etatik 21:00etara hika ikastaroa proposatzen du.

AEKren bulego ordutegia astelehenetik ostiralerakoa da goizeko 9:30etik 13:30era eta arratsaldeetan 16:30etik 19:30era. Gogoratu AEKren egoitza Irungo Legia kaleko 6. Zenbakiko behean kokatua dagoela. Beraz, interesdunek bulegora harrera orduetegian hurbildu, irun@aek.eus helbidera idatzi, 943628834 telefonora deitu edo 688746633 zenbakira WhatsApp bidez idazteko aukera izango dute.

Ahalegin saritua
Orokorrean, Irungo hiru euskaltegien kasuan, ikasleek euskara ikasteagatik diru laguntzak jasotzeko aukera izango dute. Eusko Jaurlaritzak HABEren euskara-mailak edo horien baliokideak gainditzen dituzten ikasleei dirulaguntzak emango dizkie. Horrez gainera, Irungo Udalak, berriz, kurtsoaren kostuaren % 100a ordainduko die ikastaroak ondo aprobetxatzen dituzten ikasleei.

Aitor Gorrotxategi, piraguista:

"Oso polita izan da denboraldia maila internazionalean amaitu ahal izatea"

Aitor Gorrotxategi piraguista irundarra Europako eta Munduko txapelketetan lehiatu da aurtengo udan. Abuztuaren 3tik 7ra Halifaxen, Kanadan, jokatutako Munduko Sprint Olinpikoko Txapelketan lehiatu zen eta 7. postua lortu zuen. Ia atsedenik hartu gabe Munichera bidaiatu zuen eta han Europako K-1 1.000m-tako txapelketan parte hartu zuen eta 13. postuan sailkatu zen. Piraguista irundarra udako kirol hitzorduetan lortutakoaz mintzatu da.

Munichetik iritsi berritan, lortutakoa barneratzeko astirik izan duzu?
Bai, abuztuaren 22an Munichetik itzuli nintzen eta hurrengo egunak burua hemen zentratzeko erabili nituen. Beraz, bai dagoeneko izan dut gertatutakoa ulertzeko denbora nahikoa.

Abuztu hasieran Munduko Txapelketan egon zinen Kanadan Pedro Vázquezekin batera eta elkarrekin K2 1.000 metroko proban parte hartu zenuten. Nola bizi izan zenuten txapelketa?
Hori izan zen uda honetan jokatutako lehen nazioarteko txapelketa, hain zuzen ere, munduko txapelketa. Uste dut orokorrean txapelketa ona egin genuela. Egia da lehenengo egunean egindako sailkapen probaren emaitzarekin ez ginela oso gustura geratu eta, ondorioz, finalaurrekoetan berriro lehiatu behar izan ginen. Orduan bai, lasterketa oso ona egin genuen eta egindako lanak sentsazio onak utzi zizkigun. Behin jada finalean sartuta, azkeneko eguneko lasterketa bai benetan ona izan zela. Eguraldi gogorreko eguna izan zen, haize handia altxatu zen eta gainera aurpegiz jotzen zuen. Hori dela medio, denborak ohi baino motelagoak izan ziren. Nahiz eta egun horretako baldintzek ez lagundu, erronkari gogoz ekin genion eta lortu genuen beharrezko maila ematea.

Ia atsedenik hartu gabe Europako txapelketara joan zinen. Pozik zaude bertan lortutako emaitzekin?
Bai. Izan ere, txapelketa batetik itzuli eta jetlag nekea gainean genuela hurrengorako entrenatzen hasi ginen. Madrilen entrenatzen egon ginen eta gero guk doikuntza deitzen dioguna egiten hasi ginen, hau da, txapelketara iritsi aurretik atseden apur bat hartzea. Munichen bakarrik lehiatu nintzen, beraz, txipa aldatu behar izan nuen. Gainera, distantzia olinpikoa zen, K1 1.000m. Piraguismoaren barneko modalitate historikoa da eta beraz, aditu asko dago. Oso gustura geratu nintzen nire 13. postuarekin. Finalean sartzea lortu ez banuen ere, uste dut B finalean oso lasterketa ona egin nuela, lehen egunetik bigarrenera gauzak hobetzeko aukera izan bainuen. Orokorrean, esango nuke Munichen txapelketa polita egin nuela.

Horrek guztiak denboraldiari amaiera borobila ematekо aukera eman dizu, ezta?
Bai. Guk denboraldia oso goiz hasten dugu, urrian hasten baikara entrenatzen. Espainia mailako lehen txapelketa martxoan egiten dugu. Lehen zati horretan Espainia mailan lehiatzen gara eta ranking bat osatzen dugu. Denboraldiaren bigarren zatian, berriz, maila internazionalean lehiatzen gara. Denboraldi osoak gauza positibo dezente izan ditu eta oso polita izan da denboraldia nazioarteko mailan amaitu ahal izatea.

Denboraldi hasieran zure helburuak aurten lortutakora bideratuak zenituen?
Bai. Izan ere, 18 urteak bete nituenetik 23 urteak bete arte Sevillan bost denboraldi egin ditut. Aurten 23 urte bete ditudanez Sub23 kategoriatik atera naiz eta maila absolutura pasa naiz. Aurten Madrilen egon naiz talde absolutuarekin lanean eta hori izan zen neguan zehar gertatutako aldaketa sakonena. Talde absolutuan sartu nintzenean, nire helburua izan zen dinamikan sartzea eta pixkanaka erritmoa hartzea noraino iritsi nintekeen ikusteko. Negu gogor baten ostean, ranking nazionaletako emaitzak ikusi ondoren ohartu nintzen nazioarteko plaza bat lortzeko aukerak nituela. Behin hori lortuta, ikusi dut maila internazionalean ere emaitza onak izan ditudala.

Orain atseden hartzeko unea iritsi zaizu?
Hori da. Guk denboraldia azkeneko nazioarteko txapelketa egin arte luzatzen dugu. Ondoren, 4 edo 5 asteetako atsedenaldia hartzen dugu hurrengo denboraldia prestatzen hasi aurretik. Beraz, urrira arte Irunen egoteko aukera izango dut eta familia eta lagunekin egoteko aprobetxatuko dut. Urrian berriro ere lanean hasiko gara.

Zein aurreikuspen dauzkazu hurrengo denboraldirako?
Lehen erronka berriro entrenatzen hastea eta lan erritmoa hartzea izango da. Piraguismoan urtero Munduko eta Europako txapelketak egiten direnez, hurrengo urterako txapelketa horietan lehiatu ahal izateko sailkapenak lortzen ahaleginduko naiz. Behin jada sailkatuta, ea emaitza politak lortzeko aukerarik dugun.

Aurten lortutako emaitzekin, datorren denboraldirako helburuak aldatuko dira?
Helburu finkoak ezarri ordez, lanean hasi eta egunero nolako sentsazioak dauzkadan ikusten joan nahi dut. Behin urtarrila edo otsaila iristen denean, hautaprobak hurbilago daudenean orduan bai hasiko garela helburuak zehazten.

Hondarribiko neska arraunlariak Euskotren Ligan lehiatuko dira datorren urtean

Datorren denboraldian 8 traineru lehiatuko dira txapelketako lehen kategorian

"Oso pozik gaude eta taldean alaitasuna sumatzen da"
Amaia Olazabal, arruanlaria

"Goiko liga horretara itzultzeak alaitasuna suposatzen du"
Helene Sagarzazu, arraunlaria

Aurtengo ETE denboraldia amaitu da eta Hondarribiak Euskotren ligara igotzeko txartela irabazi du. Denboraldi ona egin dute eta neskek merezitako saria irabazi dute. Amaia Olazabal eta Elene Sagarzazu Hondarribiko ontzian arraunean ibili diren bi arraunlari irundar dira eta denboraldiko gorabeherak nola bizi izan dituzten kontatu dute.

Taldea denboraldiko lorpenekin pozik dago?
Amaia: Bai, mila esker. Oso pozik gaude eta taldean alaitasuna sumatzen da. Izan ere, denboraldi hasieran gure buruari ezarritako helburua betetzea lortu dugu. Oraindik ez dugu ospatzeko astirik izan, baina bai noski, oso pozik gaude lortutakoarekin.

Aurreko zapore gazi-gozoa kendu duzue igoera honekin?
Amaia: Bai, uste genuen atzera pausu honek taldea atsekabetuko zuela, baina ez da batere horrela izan. Esan ohi den bezala, atzera pausuak abiadura hartzeko aukera eman digu eta horrela gure helburua lortu ahal izan dugu.

Zein izan da hasieran markatutako helburu hori lortzeko gakoa?
Helene: Nik uste helburua lortzeko gakoetako bat batez ere kirolarien artean sortu dugun giroa izan dela. Izan ere, aurretik horrelako erronka bat duzunean laguntasuna funtsezkoa da. Horretaz gain, entrenatzailearen, klubaren, herriaren eta afizioaren babesa funtsezkoak izan dira.

Arrauna bezalako kirol batean talde lana funtsezkoa da. Datorren urterako aurtengo giro ona mantendu nahiko duzue, ezta?
Amaia: Bai, espero dugu daukagun giroa eta arraun blokea mantendu ahal izatea, asko laguntzen digulako bai barruan zein kanpoan.

Zer pasatu zaizue burutik datorren denboraldian pentsatuta?
Helene: Batez ere, poztasuna. Azken batean, goiko liga horretara itzultzeak alaitasuna suposatzen du, baina kirolean pausuz pausu joan beharra dago. Agian zerbait pentsatzen hasi zaitezke, baina burua hotz mantendu behar dugu. Orain pixkanaka entrenatzen jarraitu behar dugu eta ilusio berdinarekin borrokatzen jarraitu behar dugu.

Datorren urtean Euskotren ligan 8 traineru lehiatuko dira. Traineru kopurua handitzeak zuen prestaketan eragingo dizue?
Amaia: Ez, printzipioz lehiatzeko modua berdina da. Oso garrantzitsua da eman den pausu hau, goiko ligan 8 traineru egotea albiste ona da, ez arraunlarientzat bakarrik, baita ikusleentzako, beste xarma bat emango duelako.

Beraz, aurten bandera lortzeko lehia handiagoa egongo da?
Helene: Bai. Guztira bi txandetan lehiatuko gara eta bandera lortzeko lehia handiagoa izango da. Hortaz, erabakigarria izango da Ohorezko Txandan sartu ahal izatea bandera irabazteko.

ETE ligako denboraldia amaitu arren, oraindik Kontxako Banderan lehiatzea geratzen zaizue. Nola doaz prestaketa lanak?
Helene: Azkenean banku finkoan ospe handia duen txapelketa da Kontxako Bandera. Horregatik, ilusioz egingo diogu aurre erronka berri honi. Jasotzen dugun emaitza jasotzen dugula ere oso pozik egongo gara egindakoarekin, ziur azken paladara arte borrokatuko garelako, behintzat horretan saiatuko gara.

Azken erronka honi aurre egiteko prestaketa berezirik egin duzue?
Helene: Betiko martxan. Azken batean pasuz pausu lan egiten jarraitu dugu, beti egin izan dugun bezala eta etengabe entrenatzen.

Honen guztiaren ostean atsedenaldia hartuko duzue?
Amaia: Printzipioz deskantsatu. Libre izango dugun denboraz disfrutatu eta hurrengo denboraldia hasteko indarra hartu.

Zabalik daude Ahalduntze Eskolarako eta Autoestimu Tailerrerako izen emate epeak

“Bi ekintzetan plazak mugatuak dira, eta izena emateko hurrenkeraren arabera esleituko dira”

“Ahaldundu nahi duen edozein emakumek izan behar du horretarako aukera, haren egoera ekonomikoa edozein dela ere”

Miren Echeveste, Berdintasuneko ordezkaria

Ikasturte berriaren hasierarekin matrikulazio aldia iritsi da. Irailean Emakumeen Ahalduntze Eskolak bigarren seihilekoko programazioari ekingo dio eta 4 ikastaro eskainiko dira urtea amaitu aurretik. Era berean, aurreko urteetako ereduari jarraituz taldean komunikazio positiboa eta autoestimua lantzeko tailerra ere antolatuko da. Dagoeneko martxan da bi ekintza horietan parte hartu ahal izateko izen ematea.

Miren Echeveste Irungo Udaleko Berdintasuneko ordezkariak ahalduntze eskolaren eta autoestimu tailerraren izen emate epeak eta eskaintzaren nondik norakoak azaldu ditu. Emakumeen Ahalduntze Eskolaren barnean antolatuko diren 4 tailerretarako izen ematea irailaren 14a baino lehen egin beharko da Irungo Udalaren webgunearen bitartez. Komunikazio positiboa eta Autoestimua Lantzeko tailerrean izena emateko epea, berriz, irailaren 12an amaituko da eta udalaren webgunearen bidez edo 010 edo 943 50 51 52 zenbakietara deituta egin behar da. Berdintasun ordezkariak gogoratu duenez, “ bi ekintzetan plazak mugatuak dira, eta izena emateko hurrenkeraren arabera esleituko dira”.

Echevestek ahalduntze eskolak izandako fase ezberdinak gogoratu ditu, eskolak azken urteetan emandako salto kuantitatibo eta kualitatiboa azpimarratzeko. Era berean, tailerren doako izaeraz mintzatu da esanez, “ahaldundu nahi duen edozein emakumek izan behar du horretarako aukera, haren egoera ekonomikoa edozein dela ere”. Berdintasun ordezkariak jarraian proposatzen diren tailerren izaera praktikoa nabarmendu du: “Teoria oso ondo dago, baina harekin batera lan praktikoa egiten badugu, askoz iraunkorragoa eta eraldatzaileagoa izango da geratzen zaigun arrastoa”.

Ahalduntzea sustatzeko 4 tailer

- **Nutrizio lantegia**

Lehen tailerrak 3 modulu dauzka. Horien bidez, emakumeen organismoaren funtzionamendua osatzen duten 3 sistemen, immunitate-sistema, nerbio-sistema eta hormona-sistemaren arteko lotura estua ezagutuko da. Sistema horietan eraginda, gure osasun psikofisikoa hobetuko dugu, eta hori premiazkoa da egungo gizartean. Teoriatik harago, parte-hartzaileei eguneroko ohitura batzuk hobetzeko gakoak azalduko zaizkie.

Irakaslea Jone Mendarte izango da. Dietetika eta nutrizioko goi mailako teknikaria da, eta esperientzia du zenbait lanpostutan, hala nola osasun hezitzaile, aholkulari dietetiko pertsonalizatu eta ospitaleetako dietetika eta nutrizio unitateko teknikari gisa. Ikastaroa ostiraletan izango da, 17:30etatik 19:30etara, Palmera Montero Guneko 4. aretoan, eta hiru saio izango ditu, aurrenekoa irailaren 23an eta azkenekoa urriaren 7an.

- **Sexualitate kontzientea**

Bestalde, sexualitate kontzientearen ikastaroak bidaia bat egitea proposatzen du, emakumeen komunitate batean, emakumeek beren burua, gorputza eta sexualitatea modu kontzientean ezagutu dezaten. Horretarako, espiritualtasuna, maitasuna eta erotismoa landuko dira.

Irakaslea Amaia Urieta García izango da. Mindfulnessean espezializatutako aholkularia, terapeuta transpertsonala eta biodantzako laguntzailea, besteak beste, bai eta autozaintzarako mindfulness ikastaroen sortzailea ere. Ikastaroa asteartetan eskainiko da, irailaren 27tik azaroaren 29ra, 17:30etatik 19:30etara, Palmera Montero Guneko 4. aretoan.

- **Nire botere lekua**

“Nire botere lekua” ikastaroak arreta bakoitzarengan jartzeko modua irakatsiko du. Ikastaroan gune hori landuko da ariketa praktikoen bidez eta, bertatik, ikusiko da zer pentsamenduk mugatzen gaituzten, unean bertan bizitza libre eta osoago bat bizitzeko urratsak egiteari dagokionez.

Hori guztia Clara Wolfranen eskutik. Prestakuntza handia du berdintasunarekin, sexualitatearekin, mindfulnessarekin eta Gestalt psikoterapiarekin lotutako gaietan, eta ibilbide profesional oparoa du. Ikastaroa ostegunetan egingo da, urriaren 20tik abenduaren 15era, 17:00etatik 19:00etara, Palmera Montero Guneko 5. aretoan.

- **Antzerki Eskola Feminista**

Azkenik, Antzerki Eskola Feministaren ikastaroa ere eskainiko da. Ikastaro horretan, ikaskuntza ezinbesteko tresna bilakatuko da besteen aurrean sortzeko, besteen aurrean antzezteko, besteen aurrean nork bere burua erakusteko, irtiziak adierazteko eta hobekuntzak proposatzeko. Azken batean, Antzerki Feministaren Eskolak taldean sormena esperimentatzeko espazio bat sortu nahi du. Mugimenduaren eta hitzaren plazera, espazioa okupatzearena, zer garen eta nolakoak garen sentitzearena, baita bakoitzaren ahotsarekin eta gorputzarekin espazioan zer irudikatzen dugun ere.

Ikastaro honen bitartekaria Ana Pérez Giráldez da. Jasotako prestakuntzaren eta ikuskizunen praktikaren bidez, prestakuntza ikastaroak zuzentzen eta diseinatzen ditu, askotariko tekniketan oinarrituta (inprobisazioa, clowna, bufoiak, komunikazioa, talde dinamikak eta genero ikuspegia). Ikastaroa ostiraletan emango da, urriaren 21etik azaroaren 25era, 18:00etatik 20:00etara, Palmera Montero Guneko 5. aretoan.

Autoestimua lantzeko tailerra

Aurreko urteetan bezala, Berdintasun arloak emakumeei zuzendutako komunikazio positiboa eta autoestimua lantzeko tailer bat antolatu du. Taldeko jarduera honen bitartez sustatu nahi da emakume parte-hartzaileen komunikazio positiboa, autoestimua eta ongizate pertsonala. Azken urteetan udalerrian egin izan den tailerra da, eta parte hartzen duten emakumeek oso balorazio positiboa eman ohi diote. Ikastaroak Elizabeth Olaskoaga Ezeizak emango ditu, Lahar Elkarteko aditu profesionalak. Lehentasuna izango dute tailerra aurretik egin ez duten Irunen erroldatutakoek.

Hemezortzi urtetik gorako Irungo emakumeei zuzendua dago, doakoa da eta emakume parte-hartzaileei zenbait gaitasun eta baliabide pertsonal erakustea du helburutzat, komunikazio positiboa errazteko eta autoestimua indartzeko, bizitza guztian. Horrela, beren ongizate emozionala areagotzen lagunduko dugu, bai eta haien harreman pertsonal eta sozialak hobetzen ere, hala familian nola kalean.

Bi tailer egingo dira, asteazkenetan, bata goizez 10:00etatik 12:00etara eta bestea arratsaldez 17:30etik 19:30era. Bakoitzak 12 saio izango ditu, irailaren 14an hasita eta abenduaren 14an amaituta. Tailer hauek Palmera Montero Guneko 4. aretoan egingo dira.

BELASKOENEA LH2



Denbora-pasak

7 hitz: Eskolaz kanpoko ekintzak

Y	M	N	P	B	D	J	W	X	Q	L	K	K	V	
Z	K	K	T	P	T	V	Y	M	M	S	Y	W	Q	
S	Q	Z	M	L	M	M	X	Y	J	M	Q	B	X	
I	X	E	U	U	R	F	K	X	E	I	E	W	G	
W	A	E	M	N	X	S	O	U	B	H	C	Q	E	
B	K	Z	K	D	W	T	I	S	E	M	K	Z	S	
E	E	A	X	E	R	R	U	G	B	I	A	L	K	
Z	A	G	C	X	G	U	Q	C	Y	A	W	Y	U	
S	H	U	I	I	O	E	R	I	K	E	T	A	B	
L	B	W	F	J	T	L	B	W	G	C	C	P	A	
W	O	Z	F	E	S	K	U	L	A	N	A	K	L	
M	U	S	I	K	A	G	T	M	B	Y	P	Y	O	
L	O	A	N	T	Z	A	B	X	I	A	J	Z	I	
W	N	I	L	Q	O	J	C	U	R	Z	M	O	A	

Musika, dantza, eskubaloia, errugbia, xakea, eskulanak, igeriketa

				2	9	6		1
	2	4	3					
					7	4		5
					6			
	8			9		1		
		9			3	5	7	4
1	4			7	2	8		6
	5							9
		2			4		1	

EUSKARAZ, IRUNEN BARRENA

Mozkorren izenak euskaraz

1. Mozkorra
2. Leatza
3. Muturra berotua
4. Txispa aundiya
5. Karretill bustiya
6. Ondo serbittua
7. Tranka aundiya
8. Ankak bustiya
9. Konfesoria
10. Barrika
11. Zagiya
12. Erana
13. Ongi lagundua
14. Eskalaproya
15. Eskribaua

<<Ze, ankak busti dituzu>>

<<Begi zak, orrek ze eskalaproia daaman>>

<<Eittenttu esiak eskribauak biño ederkiyo>>

<<Berriz ere esango ditttek gu onela ikusten gattuztenian:
kuadrilla ori maixko deskuidatzen duk eranian>>

<<Biba biba biba
Gure umore onian dabillena
Guazen guazen guazen
geren lagunetara>>

S.R.A. andereari jasoa (1959ko abuztua).

(El Bidasoa, 1959-IX-19)

Iturria: Nikolas Alzola Gerediaga
Euskaraz, Irunen barrena

EL PILAR DBH4

Influencerrak. Gehiegi baloratuak ala mespretxatuak? **AMAIA HERRERO**

Gaur egun influencer-en gaia asko entzuten da, hori lanbide bat ez dela, hobbie bat baizik... Lehenik eta behin, zer da influencer bat? Sare sozial edo beste komunikazio-kanal batean nabarmentzen den pertsona bat, gai bat edo gehiagotaz bere iritzia ematen edo bere bizitza partekatzen duenak. Influencer hauek 2004-06 urteen artean agertu ziren, sare sozialekin batera.

Influencer baten lana normalean marka zehatz batzuen produktuak probatu eta haien ikusleei gomendatzea da, eta hau noski, ordaintzen diete. Eduki interesgarria sortu behar dute, eta nahiko maiz gainera zenbait nolakotasun izan behar dituzte, adibidez, komunikatzaile onak izan behar dira, baita pertsona sendoak eta konbentzigarriak, sustatzen duten produktua benetan ona dela sinisteko.

"Askok pertsona hauek kritikatu egiten dituzte gazteengan duten influentziarengatik (anorexia, depresioa, zenbait aplikazioekiko adikzioa, ...)"

Lehenik eta behin ikusi nahiko edo gustuko izan ez bazenitu ez zenituzke jarraituko, bere ondorio guztiekin; haien argazkiei *like* eman, historiak ikusi... eta honi esker gainera, haiek aberasten dira, zu kritikatu bitartean.

Nire ustez ez dute kalterik egiten, anorexia edo depresioa ez dute sorrarazten. Beti ikusiko dituzu zurea baino politagoak diren gorputzak, argalagoak, altuagoak, osasuntsuagoak... Baina zure gorputza maitatzen ez baduzu ezin diozu inorri kulpa bota, zuk landu behar duzun arlo bat da (autoestimu).

Beste alde batetik pertsona helduak influencerrak mespretxatzen dituzte, ez dutela ezer egiten, dena ordaintzen dietela, talenturik ez dutela... eta zertarako jarraitzen diegu galdetzen dute baina ez dira konturatzen gaur egungo influencerrak bere garaiko famatuak bezalakoak direla, esterako abeslariak. Adibidez Chenoa; OT-ko lehenengo edizioan agertu zen, are gutxiago irabazi baina fama asko hartu zuen eta bere bizitza osoa konpondu egin du, gainera aberatsa da.

Azkenik pertsonalki uste dut lan hau beste edozein lan bezala errespetatu behar da. Nik jarraitzen ditudan espainiar influencer batzuk @nuriablanco3 @carlomaranon @jmuchelas ... etab. Neska hauek guztiak karrera unibertsitario bat dute, zehazki harreman publikoak. Karrera hau oso lagungarria da bere lanbiderako komunikatzaile onak izaten laguntzen dielako.

Beraien lana hainbat markekin kontaktatzea da, babesleak bilatzea, produktuak gomendatu. Baita lan hau zure bizia "baldintzatzen" du, oso agerian dago eta pertsona pila bat zer egiten ari zaren dakite, zure etxea, zure gustuak, non zauden... Beraz ez da hain erraza dena batera egitea.

Puntu guztiak kontuan hartura influencer-en aide nago, oso mespretxatuak izaten direlako eta bere lana errespetatu behar delako. Gaitzetsi baino lehen ondo informatu behar zara zeren agian egun batean lanbide normal batean baino ordu gehiago eman behar dituzte. Gainera autonomoak direnez haiek haien burua planifikatu eta aurrera atera behar dute, soldata finkorik ez dute beraz lan estresagarri eta nolanahi konpetitiboa da.

Marieta Minasyan, ile apaintzailea:

"Bezeroek zure lana erreferentzia gisa erabiltzeak ez du preziorik"



Marieta Minasyanek izen bereko ile-apaindegia du Pio XII auzoko Sebastian Errazu kaleko 7. zenbakiko behean. Armeniar jatorriko ile-apaintzaile honek bere lehen ametsa betetzea lortu du dagoeneko: bere negozio propioa kudeatzea. Dena den, Marieta Minasyanek azaldu du oraindik estetikaren munduarekin lotura duen bigarren amets bat betetzeko duela.

Zein da zure istorioa?
Marieta Minasyan naiz, Armeniakoa naiz eta 29 urte ditut. Ile-apaintzailea eta makillatzailea naiz, eta 15 urte baino gehiago daramatzat lanbide honetan. Betidanik gustatu zaidan zerbait da. Asko gustatzen zait makillajearekin, ile-apainketarekin eta estetikarekin zerikusia duen guztia. Orain esan dezaket neure negozioa sortzea lortu dudala, beti bete nahi izan dudan ametsa izan baita.

Nola lortu duzu Irunen zure ile-apaindegi propioa irekitzea?
Denbora gutxi daramat nire kontura lanean, nire ile-apaindegia ireki nuenetik bi urte baino ez baitira igaro. Hala ere, urte askotan lan egin dut auzo honetan. Nire aitak bere negozioekin hemen denbora asko instalatuta zeramalako etorri nintzen Irunera, eta orain familia osoa hemen daukat. Beraz, hainbeste denboraren ostean, ia etxean banengo bezala sentitzen naiz.

Ile-apaindegiaren kasuan ezinbestekoa da etengabe berritzea joera berrietara egokitzeko, ezta?
Horixe da, hain zuzen, gehien gustatzen zaidan gauzetako bat, etengabe prestatzeko eta berritzeko beharra. Sektore honetan oso garrantzitsua da berrikuntzei begira egotea. Etengabe ateratzen dira gauza berriak, joera edo modak, eta horietara egokitu behar da. Niri gehien gustatzen zaidana metxekin zerikusia duen guztia da. Ahalegin handiak egiten ditut arlo horretan espezializatzen saiatzeko. Adibidez, Irundik kanpora joan ohi naiz ikastaroak eta prestakuntzak egitera. Gustatzen zait eskola espezializatuetara joatea gaiari buruz ikasten jarraitzeko.

Eta nola moldatu zara bezeroak lortzeko?
Lehen aipatu dudan bezala, nire negozioa ireki aurretik ere urte asko eman nituen auzo honetan lanean. Egia da hasieran beldur handia izan nuela nire kabuz lanean hastea erabaki nuenean, justu pandemia iritsi zelako. Uste nuen askoz zailagoa izango zela. Beldur nintzen ez ote zen erabaki zuzena izango, ez bainuen nahi lanik gabe geratzea eta hainbeste ahalegin eta gastu egin ondoren lokala utzi behar izatea. Agian nire negozio berria itxi beharko nuela zirudien, baina ez zen horrela izan eta hemen jarraitzen dut.

Emakume ekintzaile gisa, zailagoa izan da zure negozioa irekitzea?
Zaila izan zen, inork lagundu ez zidalako. Inork ez zidan esan nola egin behar nituen gauzak edo nondik hasi behar nuen neure ile-apaindegia muntatzeko. Azkenean, dena nik bakarrik egitea lortu nuen, ez nekiena ikasiz eta nire inguruko pertsonei galdetuz. Prozesu zaila izan zen, baina orain oso atsegina da dena ondo doala ikustea.

Prestakuntza ikastaroetara joateaz gain, lehiaketetan ere parte hartzen al duzu?
Bai, asko gustatzen zaizkit txapelketak, hori da maite dudan beste gauza bat. Etorkizunean, nire ametsa eszenatoki baten gainean egotea da. Izugarri gustatzen zait agertokietan jendea lehiatzen ikustea. Esate baterako, 2017an Asturiasko Art Expression azokan parte hartu nuen, eta txapeldunorde geratu nintzen emaztegaien orrazkera bildu komertzialen kategorian. Esperientzia sinestezina eta oso aberasgarria izan zen.

Zeintzuk dira une honetan gehien eskatzen diren gauzak?
Gaur egun, sare sozialek eragin handia dute gure gustu eta desioetan. Beraz, jendeak asko erreparatzen dio Instagramen ikusten duen guztiari. Horregatik, egunero saiatzen naiz Instagramen argazkiren bat edo bideoren bat igotzen, nire lana erakusteko eta jendeak egin dezakedan guztia ikusteko. Hala ere, egia da sare sozialen edukia lantzeko denbora asko behar dela. Nire ustez, gehien eskatzen didaten gauzetako bat metxak dira eta uste dut partekatzen dudan edukiak eskari horretan zerikusi handia duela. Batez ere, ile hori koloreko metxak egin nahi duen jendea etortzen da, edo ile beltzarana duena eta argitu nahi duena.

Beraz, gaur egun, sare sozialetako lana funtsezkoa da ezagutzera emateko?
Hori da, sare sozialetan oso aktiboa izaten saiatzen naiz, asko gustatzen zaidan zerbait dela aprobetxatuz. Asko gustatzen zait jendeak nire lanak argitaratzen ditudanean erreakzionatzea eta zer iruditu zaien esatea. Oso atsegina da bezero berri batek eredu bezala zuk egindako lan baten argazkia erakusten dizunean. Bezeroek zure lana erreferentzia gisa erabiltzeak ez du preziorik.

Zeintzuk dira ile-apaintzaile baten erronka nagusiak gaur egun?
Nire kasuan, gehien gustatzen zaidana kolorearekin eta metxekin zerikusia duen guztia lantzea da, baina, zalantzarik gabe, garrantzitsuena bezeroaren azken erreakzioa da. Zure eskuez fidatu ondoren, bezeroa erabat pozik geratzea da zailena. Hori askoz garrantzitsuagoa da ilea bera nola geratzen den baino.

Nola irudikatzen duzu etorkizuneko Marieta?
Eszenatoki batean. Nire ametsa eszenatokietara iristea da. Oraingoz, nire lehen ametsa bete dut, hau da, neure negozioa sortzea. Orain bigarren eta azken amets hau egia bihurtzeko zain nago. Horregatik, etorkizunean nire lana agertoki batetik erakustea gustatuko litzaidake, eta jendeak metxak egiten ikas dezala nirekin.

bideosare
-> Ikus-entzunezko proiektuak
-> Bideo grabaketa eta edizioa
-> Multimedia
Bideoak zure erara !
bideosare.com

ESTUDIO FOTOGRAFICO GO VER™

Fernando Vergara
argazkilaria
Letxumborro hiribidea 100.2º
20305 Irun
943 840 113 - 647 930 484
www.fotogover.com
www.fotogoverbodas.com
info@fotogover.com

irun
www.irun.org/igazte
gazte
informazioa

CBA Kultur Gunea
943 50 54 44
igazte@irun.org
607 77 11 73
www.irun.org/igazte

ASEXORA-T

Gazteria Sailak, Raquel Calvo hezitzaile eta sexologoarekin batera, espazio hau sortu du, sexualitateekin lotuta dituzun zalantza edo jakinmin guztiak argitzeko: maitasun-harremanak, sexu-harremanak, kontrazepzioa, sexu-orientazioa, gorputzaren biologia, hausnarketak...

Zerbitzua konfidentziala eta doakoa da.

Idatziguzu asexorate@irun.org helbidera eta argitu zalantzak

Gazte-txartelaren bidaia asegurua

Gazte-txartelaren erabiltzaile guztiek doako bidaia asegurua eskura dezakete; horretarako, Gazte-txartela aktibatu besterik ez duzu egin behar.

Mundu osorako balio du, ohiko etxebizitzatik 30 kilometrotik aurrera eta gehienez 105 eguneko bidaietan.

Aseguru honen bermeetan sartzen diren zerbitzuak jaso ahal izateko, ezinbestekoa da aseguratuak horiek jaso nahi dituela adieraztea; horretarako, honako telefono honetara deitu behar du zerbait gertatzen zaion unean bertan (deiaren hartzaileak ordaintzeko deia egin dezake. 24 orduz etenik gabeko zerbitzua): +34 915 72 43 43

Aseguruari buruzko informazio gehiago behar baduzu, jarri gurekin harremanetan posta elektronikoko helbide honetan: gaztetxartela@euskadi.eus

Gazte Kultura Bonua 2022

Kulturako Gazte Bonua 400 €-ko laguntza da aurten adin nagusitasuna lortzen duten gazteentzat. Bonuaren bidez, Kultura eta Kirol Ministerioak gazte helduengan kultur jardueren aurkikuntza eta gozamena bultzatu nahi du, kultura beren bizitzan gozatzeko ohitura gisa barneratzeko.

Bonu honek hainbat kultura adierazpenetarako sarbidea eta deskubrimendua sustatzen ditu, eta hiru arlo jakinetan gastatu ahal izango da:

– Ikus-entzunezko arteak, zuzeneko arteak eta kultura ondarea 200 €

– Euskarri fisikoko kultura produktuak 100 €

– Kontsumo digitala edo online 100 €

Gazte Kultura Bonua eskatzeko, beharrezkoa da ziurtagiri digitala izatea (aldez aurretik eska daiteke) identifikatu ahal izateko. Identifikazio digitala ez izatekotan, Cl@ve autentifikazio sisteman inskribatu ahal izango da eskaera prozesua egitean.

Bonua uztailaren 25etik urriaren 15era arte eskatu ahal izango da.

Webgunea: https://bonoculturajoven.gob.es/

BONO CULTURAL

Gazteak Auzolanean

Gazteak Auzolanean gazteentzako beka multzoen programa espezifikoa da. Gazteria Zuzendaritzak kudeatzen dituen beka hauen helburua da ingurunea inplikatzen duten talde egitasmoei laguntzea, interes publikoa duten eraldaketa sozialeko prozesuak bultzatzeko.

Gutxienez 3 pertsonak, 18 eta 30 urte arteko gazteek, osaturiko taldeek parte har dezakete. Horiek proiektu bat gauzatzea proposatu beharko dute, baina ez dira elkarte edo enpresa gisa eraturik egongo eta, hortaz, ez dute nortasun juridikorik izango.

Gehienezko zenbatekoa 5.000 euro izango da, eta gutxienekoa 1.500 euro. Dirulaguntza hauen kopuru osoa 25.000 euro da.

Telefonoa: 943 47 25 80 (Urko Imaz).

Posta Elektronikoa: uimaz@gipuzkoa.eus.

Gazte BizHitza

GazteBizHitza, Gazteentzako orientazio eta aholkularitzako oNline zerbitzua da. Ikasketak, Lana edo Etxebizitzari buruz behar duzuna bilatu ezazu eta zalantzarik baduzu bidali whatsappa.

Lehen hartu-emana egiteko, bidali whatsapp bat: 646 10 91 26.

Deia jaso nahi izanez gero, bidali whatsapp mezua 646 10 91 26 zenbakira, zure telefono zenbakia adieraziz; ondoren, deitu egingo dizute. Ez dira zuzeneko deiak hartuko.
Edozelako argibide zabalagoa behar baduzu, bidaliguzu mezua helbide honetara: gaztebizhitza@euskadi.eus



IRAILAREN

2an

Gira Bira

Zer: Zirkuarekin lotutako tailerrak eta ikuskizunak.

Non: Soroxarta parkean.

Ordua: 18:00etan.

Sarrera: Doan.

2an

Kontzertua

Zer: "1522: El cantar de Gazteluzahar" kontzertua Atzokoak Abesbatzaren, Albadaren eta gonbidatuen eskutik.

Non: Junkal plazatxoan.

Ordua: 22:00etan.

Sarrera: Doan.

Oharra: Eguraldi txarra eginez gero, 20:00etan Amaia KZn.

3an

Magia tailerra

Zer: Aritz Petrikorena eta Javier Aguirreren eskutik 5 eta 12 urte arteko gazteentzako magia tailerra.

Non: Nagore Laffage plazan.

Ordua: 18:30etatik 20:30etara.

Prezioa: Doan.

Oharra: Plaza kopuru murriztua. Izen-ematea iritsiera ordenaren arabera 18:00etatik aurrera.

7an

Kontzertua

Zer: Junkaleko Ama Birjina Irungo zaindariaren omenezko kontzertua Irun Hiria Musika Bandaren eskutik.

Non: Junkal plazatxoan.

Ordua: 20:00etan.

Prezioa: Doan.

16an

Performance Izaro Ieregi

Zer: Performance Izaro Ieregi, artistentzako laguntzak.

Non: Amaia Kultur Zentroko dantza aretoan.

Ordua: 20:00etan.

Sarrera: Doako sarrera aretoaren edukiera bete arte.

16tik aurrera

Erakusketa

Zer: Adour-Bidasoa margo lehiaketa.

Non: Amaia Kultur Zentroan.

Ordutegia: Asteartetik larunbatera 18.00etatik 21:00etara. Igande eta jaiegunetan 11:30etik 13:30era.

Prezioa: Doan.

Denbora-pasen emaitzak



5	7	8	4	2	9	6	3	1
6	2	4	3	5	1	7	9	8
9	3	1	6	8	7	4	2	5
3	1	5	7	4	6	9	8	2
4	8	7	2	9	5	1	6	3
2	6	9	8	1	3	5	7	4
1	4	3	9	7	2	8	5	6
7	5	6	1	3	8	2	4	9
8	9	2	5	6	4	3	1	7

Bidasoa Formación

HIZKUNTZAK

(Ingelesa, frantsesa, euskara)

ESKOLA-LAGUNTZA

Talde txikiak eta banakako klaseak

matrikula doan

bidasoaformacion.es

Eliza kalea 4 IRUN (San Juan plazan)

688 889 547 - info@bidasoainformacion.es